

EUSKAL HERRIKO BIHARKO PERTSONA, PERTSOTALDEAK ETA PERTSONARTEA (1) (Munduko Herrien Teoria, Bihar)

Joxemartin Apalategi Begiristain
Antropologo eta irakasle

1. BARANDIARAN JOXEMIELEN *EUSKALERI'KO LEEN-GIZONA* TEORIA (1934)

Barandiaran Joxemielek kultura lehenik oso osorik euskaraz jaso zuen. Gero, eskolaratu zenean bere auzoan eta ondorengo ikastetxeetan, erdaraz bakarrik ikasi zuen kulturari buruzko gogotapen kulto guztiak. Erdaraz: espainieraz, latineraz, frantzeseraz, alemanieraz, ingeleseraz,... Batipat, espainieraz. Halere, lehen hizkuntzaren kulturarik inoiz ez zuen utzi, eta bere nortasunaren mami bihurtu zitzaiona jaiokeraz, hasera batetan, gero berbihurtarazi zion bere buruari borondatez. Are, euskarazko kulturaren Herri guztian denek beste horrenbeste egin zezaten ahalegin haundien barne sartu zen, gazte gaztetandik, eta gaurrate bertan iraundu du, laster 96 urte beteko dituenean.

Beraz, Barandiaran Joxemielek, beste euskaldun askok bezala, lehenago eta bihar bezala ere, borroka asko egin behar izan du bere kultura normalizat hartzera, bizitzera iristeko.

Halere, argi eta garbi esan nahi dut ataundar etnologo edo antropologo honen biografia eta bibliografia gaurkoz ikerketa haundien zai daudela, horietariko batzu, ez asko, iadanik egin badira ere. Orduantxe, eta ez lehenago ezagutu ahalko da Barandiaran Joxemielek nola uztartu zituen bere bizitza eta bere lanbidea. Honek, aldi berean, bere garaiko beste euskaldun askorenak ulergarriago bilkatuko dizkigu. Pertsona inoiz ez baitago bakarrik, eta gure Herrian azken ehun urte hauetan gutxiago.

1916an, beraz 25 urtekin, argitaratuko du bere lehen idazlan hau: “Ataun en la Edad Media - El Antiguo Castillo”, zeinetan egileak publikoki aditzera ematen du zein den galdera nagusia bere ikerlanetan:

Es tradición muy extendida entre los habitantes de Ataun que en aquel paraje hicieron su morada los “jentilles”, raza feroz y salvaje que, aferrada en la superstición, no quiso convertirse a la religión de

(1) Idazlan hau lehen aldiz egin nuen hitzaldi bezala emateko “Euskal Etnografiaren Hastapenak, VI. Astea - VI Semana de Iniciación a la Etnografía Vasca” delakoan, Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalaren areto nagusian, Arrasate Kalea, 12, 1985ko Urriaren 23an, asteazkenaz, 19,30etan.

los cristianos, con los cuales, sin embargo, conservaba trato muy frecuente. Son prueba de ello las curiosísimas anécdotas que todavía se cuentan de ellos.”

(Barandiaran, J.M. (1916) 1974: 486)

Jentilak, kristauak eta esaera “arraroak” ditugu, kasu honetan, aspaldiko Euskal Herri baten ezaugarri biziak, Ataungo herrian bezala beste hainbat euskal herritan ere. Horien azterketaren bila hasi eta ia 70 urte beranduago ahalegin beretan jarraitzen du Barandiaran Joxemielek. Holakoxe zaila da, batzutan, bizitza era bati eustea, kultura konkretu bati jarraitzea, euskal kulturaren, kulturazko euskal nortasunean bizitzea.

Horrela, 1934an, euskaraz, eta gazteleraz, liburu bana argitaratu zituen Barandiaran Joxemielek euskaldunon lehen lehenari buruz argibide zientifikoak ematearren. Beren izenburuak, *Euskalé'ri'ko Leen-gizona* eta *El Hombre Primitivo en el País Vasco*.

Liburu horretan Barandiaranek bere teoriarik haundiena antropologia edo etnologia mailan eman zigun, hots, euskaldunon gaurkoa eta atzoko epipaleolitikoa, duela bederatzita bat mila urte, Herri bat eta bakarraren bi denboraldi zirela hain juxtu:

Euskaldunak beren jatoli eta bizikera oso bereziak dituzte.

Oregatik nunbait Euskaléria, beste éri guztien artean, garbi nabarmendua beti azaltzen zaigu.

Berezitasun orén sustrai eta kimuak antziñantziñatik datozkigu, uründik dakarkigute beren asiera.

Kimu eta sustrai oiek, denak alkaturik, egin eta eraldu dute euskal-edesti guztia.

Orí apur oetan edesti orén lenengo aroak azaldu nai nituzke; Jesukristoren sinismena gure alderdian sortu baño lenagokoak, alegia.

Bañan antziñako idaztirik izan ezik, Arkeoloji eta Etnografia'ri eskatu bear izan dizkiegu lantxo onetan darabiltzkigun oñaririk bikañenak. Ora or gure lantegia.

(Barandiaran, J. M., 1976a: 221)

Hortik honako ezaugarriok ateratzen ditut:

1. Gaurkoa etnologia edo antropologiaren bidez aztertuz (beraz bizi bizi-rik dagoena zuzen zuzenean ikasiz) eta lehengoa arkeologiaren bidez aztertuz ere, euskaldunon iraunkortasunaren teoriara iristen da Barandiaran Joxemiel.

2. Honako elementu iraunkor hauek, besteak beste, topatzen ditu antropologoak: lurra, jatorria, bizikera.

3. Edozein pertsonarte batetan, kultura batetan, lehen, belaunaldizkoa, ahozkoa nahiz idatzizkoa izan, lehen mailako elementu pertsonaharremantzai- leen artean beti erabilia izan da. Paletnologiaren bidez euskaldungoaren lehen lehenena zientzia mailan ikasteko modua erabat irekitzen du Barandiaran Joxemielek.

Hor dago Barandiaran Joxemielen antropologiako teoriarik haundiena, nire irudiko, eta azken gure berrehun urte hauetan zientzia guztietan agian eman denik haundiena baita ere. Horren jasotzaile eta biziaraizle gara gaur gu denok Euskal Herri osoan; hori zabaltzen jarraitu behar dugu, eta gure egungo eta biharko kulturaren muineko neuronetariko bat izaten jarraiarazteko bideak egitea tokatzen zaigu Barandiaran Joxemielen eta bere garaiko eta lehenagoko beste euskal zientzilari guztien segitzaile izatekotan.

2. CARO BAROJA JULIOREN *LOS VASCOS* TEORIA (1949)

1949ko argitalpenik ez daukat eskuetan, nire asmoaren aurkako bilakatzen delarik gertakizun hau. 1958koa daukat, une honetan.

Oso gutxi ezaguna da, gaur egun batipat, Caro Barojak aipaturiko bere liburuan euskaldunei buruz emandako teoria garrantzitsua. Beste egitaldi bate- tan zabalago arduratuko naiz Itzeako ikerlariaren teoria horretaz (APALATE- GI BEGIRISTAIN, Joxemartin, 1985).

Hara nola esaten duen bere teoria Caro Barojak delako liburuan:

...

Con arreglo en gran parte a estas ideas vamos a intentar una visión de conjunto de la vida de un pueblo determinado, el vasco, que, desde antiguo, se estima que ofrece rasgos muy particulares.

(Caro Baroja, Julio, 1958: 16)

... Volviendo a nuestro caso particular indicaré que aquí he procurado estudiar la cultura del pueblo vasco como un conjunto de hechos actuales, con contornos más o menos definidos, pero que guardan una estrecha relación entre sí, aun cuando cada uno de ellos pueda tener fuera de nuestro ámbito una repartición distinta en el tiempo y en el espacio. No obstante, la postura que adopto se halla rebasada hasta cierto punto porque, para aclarar una porción de problemas que interesan a todos los que se ocupan de este pueblo, he tenido que referirme a modalidades culturales que en la actualidad no presentan formas tan destacadas como en el pasado, o que han perdido ya casi todo sentido en la vida. Si no le diera al lector otra cosa sino una descripción, siguiendo el criterio de sincronía de los

rasgos más destacables de la cultura vasca, es probable que, por su parte, quisiera buscar la causa de ellos, echando mano de argumentos mesológicos, raciales, intelectuales o emocionales aislados y tal como pueden presentarse a la cabeza de un hombre sin antecedentes sobre la historia del país. Es decir, que entre el “Estado natural” y el “estado actual” del mismo no pondría más que un solo intermedio conceptual. He procurado que se vea todo lo contrario: la complejidad de la historia vasca desde todos los puntos de vista explicativos enumerados y su significado como base de los caracteres actuales del pueblo en cuestión.

(Caro Baroja, Julio, 1958: 19-20)

Berriki, Caro Barojak, “Premio Nacional de Letras” jasotzerakoan, *Deia* egunkariko Rafael Miner kazetariak eginiko galdera bati, honela erantzuten zuen:

—Deis: ¿Cuál es la tesis fundamental de su libro “Los Vascos”?

—J.C.B.: Yo quería haber demostrado principalmente que en el País Vasco hay una unidad de lengua, de ciertos hábitos, de ciertas costumbres, pero que luego —según los ámbitos naturales: el mar, las costas, la tierra interior y la montaña—, hay variedad de formas de vida y de concepciones de vida. Desde mi punto de vista, eso es obvio.

(Miner, Rafael, 1985: 49)

3. EZAGUPENA ETA PERTSONAZKO EZAGUPENA

Ezagupena, ezagutzea zer da? Egungo mendebal kulturetako pentsakerearen arabera erantzun hauxe lortzen dugu, gehinetan, beti ez bada ere: ezagupena, lehen lehenik pertsonon ezaugarritzko egite bat da, eta gainera buruz edo intelektualki egiten dena.

Hori bakarrik ez da ezagupena. Bizitza bera ezagupena da ere. Hots, guretariko norbait sagar bat jaten ari denean, ezagupena baduela adierazten du. Beste edozein ekintza egiten dugunean, ezagupena badugula adierazten dugu.

Horregatik pertsonon ezagupena bi motatakoa da:

—Bizitzazkoa: bizitza bera da ezagupen mota bat.

—Pentsamenduzkoa: pentsatuz gero bakarrik egiten denean.

Bi mota horiek elkargurutzetuak daude, eta bakoitzak bere aldi nagusiak izaten ditu pertsona baten bizitzaren zehar. Adibidez, jaio berri batengan

bizitzazko ezagupenarena da aldirik nagusiena, eta haur hori bera etnologo edo antropologo bezala egun batez lanean arituko denean, pentsamenduzko ezagupena izango du aldirik nagusiena.

4. PERTSONAK ETA GAUZAK

Baita ere mendebal kulturetako pentsakeretan pertsonak lehen mailakotzat eta gauzak bigarrenkotzat hartzeko ohitura ezinbestekoxea daukagu.

Ohar gaitetzen, lehen esaten nuen sagarra, guretariko norbaitek jaten duenean, gure egiten da, gureganatua gelditzen da. Eta horrela, amaren eta aitaren lehen elkarrunetik hilarte eta deseginarte berriro guk, bizitzeko, hartuko ditugun elementu osatzaile guztien zerrenda bat egiten badugu, zera aitortu beharko dugu: pertsonak goregi jarri garela Izadian, eta gainerako gauza guztiak beheragotu ditugula. Alperrik, ordea! Negurri batzutara iristen garenean, desegokitasuna berehalaxe agertu ohi zaigu pertsonari, pertsonarteei, kulturei. Ez da ia nahikoa, gaurko neurobiologoek esker, *homo sapiens sapiens* eta hominidoen arteko hurbiltasunaz mintzatzea, izaki bizidun eta neuronadun guztien arteko hurbiltasuna ere aintzakotzat hartu beharra daukagu.

Ni a nivel de anatomía del córtex, ni al de su arquitectura microscópica, se da una reorganización “cualitativa” violenta que haga pasar del cerebro “animal” al cerebro “humano”. Existe, por el contrario, una evolución *cuantitativa* y continua del número de neuronas, de la diversidad de áreas, del número de posibilidades de conexión entre neuronas y, por ende, de la complejidad de las redes de neuronas que constituyen la máquina cerebral.

(Changeux, J. P., 1985: 83)

El acontecimiento más importante en la evolución del cerebro de los mamíferos, ya lo hemos dicho y repetido, es la expansión del neocórtex. Esta va acompañada de un aumento del número total de neuronas y, por lo tanto, del número y la complejidad de las operaciones susceptibles de ser llevadas a cabo por el córtex. El número de elementos celulares por unidad de superficie no cambiará; sin embargo, el grosor del córtex varía, pero en menor medida que la superficie. El córtex del hombre es solamente tres veces más grueso, por término medio, que el del ratón. Este aumento de grosor no afecta de manera uniforme a todas las capas: afecta particularmente a las capas III y V, que son las fuentes principales de conexión córtico-corticales.

(Changeux, J. P., 1985: 82)

Azken batetan, antropologikoki begiratuta gauza guztien, pertsona barne delarik, artekotasuna, hurbiltasuna eta harremantasuna azpimarkatzen da ere. Telesforo Aranzadi antropologoak, hain gutxi ezagutzen duguna egungo euskal antropologian, zera zioen kultura zela, 1918an, Eusko Ikaskuntzaren Lehen Batzarrean. Oñatin:

La cultura es, pues, el verdadero objeto de estudio de la etnología; pero cultura popular, la que posee el pueblo en sí, la que éste conserva y transforma, desarrollándola sobre la base de la tradición. Cultura es el saber guisar, hilar, layar, cazar, pescar, nadar, hacer utensilios, hablar, danzar, cantar, contar, curar, criar, mandar y obedecer, etc., etc., verbos todos que se conjugan sin letras y que muchos atiborrados de éstas mienten si lo dicen en primera persona de indicativo en voz activa; o lo hacen muy mal.

(Aranzadi, Telesforo, 1919: 365)

Kultura batetan, beraz, pertsonen eta gauzen arteko harreman onak beti zainduko, dira, nahitaez, bestela desorekak, iskanbilak, eta ezinbiziak sortuko dira.

5. EGUNGO EUSKAL PERTSONAK, PERTSONATALDEAK ETA PERTSONARTEA

Hemen, bakarrik euskal antropologiaren egoeraz mintzatuko naiz, zeinek ematen baitigu egungo euskal pertsonen, pertsonartaldean eta pertsonartearen berrietariko batzu.

Hori bai, antropologia aipatzerakoan, eta beste zientzia guztiak isiltzerakoan, zera adieratzi nahi dut: ni, une honetan, bakarrik antropologiaren ikuspuntutik arituko naizela, nire lana burutzearren, eta beste une batetan beste zientzietakoekin elkartuko naizela denona denon aurrera ateratzeko, eztabaidatzeko, erabakitzeke eta betetzeko.

Lehen lehenik esango dut, gure etnologiaren edo antropologiaren historia oso gutxi ezagutzen dugula. Hori akatsik haundinetakoa da egungo euskal antropologia jarraitzailean.

Orain, bi teoria haundien berri emango dut euskal kultura ikasteko erabili duten metodologia aipatzera mugatuko naizelarik.

Barandiaran Joxemielen Metodologia: Paleontologizkoa

Barandiaran Joxemielek berak, duela hiruhilabete eta gehixeago, Egaña Miren etnohizkuntzalariari eta biori, Bernedon ospatutako antropologiazko

bilera batetatik etxerakoan, Altsasu eta Etxegarate bitartean hain zuzen, agertzen zigun bera zergatik joan zen arkeologia ikastera:

—Ataunen jasotako, entzundako gauza batzutan jentilak non bizi eta enterratuak izan ziren aipatzen zen. Horrela, herrian, Samartingo auzoan hain juxtu, bada denek jentilbaratza esaten zioten, eta gaur ere esaten dioten, toki bat. Bueno ba, ni haraxe joan nintzen, herritar batzurekin batera, eta aztarnategia miatuz gero zera ikusi nuen: han jentilen arrastorik etzela azaltzen!, eta, aldiz, Erdi Arokoenak bai! Hauei esker Ataungo ertaroko gaztelu aipatuaren toki berbera leku hura izan zitekela ondoriotzat jo nuen eta gainera *Euskalerrriaren Alde VI* aldizkarian idatzi. Nik, orduan, nere buruari galdetu nion ea herritar kontuek jentileez esandakoa egia ala gezurra zen jakiteko nora jo beharko nuen? Holaxe, ba, samartindar batek, Arratetako nagusiak, Jentilbaratzen gertatutakoa kontatu nionean, nik aurkitu nahi nuena Aralarko aldean neukela erantzun zidan. Eta, Aralar aldera joan eta bertan aurkitu nituen nire bizitzako dolmenak. Hauek bai zirela gure herriko kontuetan esaten ziren jentilen tokiak! Hortixe hasi zen arkeologiarako nire joera guztia.

Hau da, etnologiak ematen dizkigun berri batzu edo verosimil-tzat har daitezkeen gauza batzuren frogak arkeologiak eskaintzen dizkigu —gogo biziz kontatu digu Don Joxemielek guzti hau, Miren bere parean atzekaldean eta ni bere alboan, ezkerreko aldetik, autoa gidatzen gaituela—.

Hori, 1916an gertatua izan zen. Harrezkero, nire artikulua batetan iadanik argitaratuta daukadan bezala (APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin, 1985: 156-157), Barandiaran Joxemielek etnologiazko ikerlan guztietan arkeologiazko ikerrikuspegia erabili izan du.

Barandiaranen ezagupen modu honen emaitzik gailurrena, gorago baieztatu dudana bezala, 1934an argitaratu zuen bere liburu hura, *Euskalerrri'ko Leengizona* izenekoa, gazteleraz ere beste liburu batetan eman zuena, *El Hombre Primitivo en el País Vasco* izenburuaz, da niretzat, zeinetan gaurko euskaldungoaren aurrehistoriazko jatorriaren teoria burutzen du bere egileak.

Caro Baroja Julioren Metodologia: Etnohistorizkoa

Euskalerrrian Caro Baroja Julio izan da etnohistoria metodologiaren oinarritzaile nagusia. Ikermodu horretatik joz joan da bere opera omnia harrigarria eraikitzen.

Baieztapen honen lekukotzat hamaika froga, idatzizkoa nahiz ahozkoa, dago ematea. Hemen eta orain horietariko bi besterik ez dut emango.

Caro Barojak, hamabost urte eginda edo oraindik egiteko zegoela, bere lehen idazlana argitara eman zuen Barandiaran Joxemielen aldizkarian, *Anuario de Eusko-Folklore*-n IX. zbk.an eta 1929an. Idazlanaren izenburua hau da: “Algunas notas sobre la casa en la villa de Lesaka”. Bere egileak Lesakako

herrian berak zuzenean ikusitakoa, biziutakoa eta herriari buruzko artxiboetan irakurritakoa batera erabiltzen, uztartzen ditu. Hots, etnologiarenak eta historiarenak jasoaz gorputzen du bere ikerlana.

Hil honen 23an, astelehenez, Caro Baroja Juliokin, Bidasoako Berako bere etxean, Itzean, ordu luzez egon nintzen. Elkarrizketaren gai bat etnohistoriari dagokiona izan zen, eta hauxe ziotan:

—Ahora algunos antropólogos, recientemente llegados a esta ciencia, están hablando de la “etnohistoria” como si por vez primera se tratara de ella en antropología! Hoy existe una gran falta de reactualización de conocimientos antropológicos de tiempos anteriores.

Caro Barojaren ezagupen modu honen emaitzik gailurrena, Euskal Herrian, 1949an argitaratu zuen bere liburu hura da, *Los Vascos*.

Apalategi Begiristain Joxemartinen Metodologia: Etnologizkoa

Barandiaran Joxemiel maisuarengandik nik ikasitako ikasgai nagusienetari-ko bat hauxe izan da: “En Etnología no es adecuadamente inteligible lo que no ha sido vivido” (Barandiarán, J. M., 1969-70: 9). Ikasgai honek erabat hartua nauka, eta aspalditik hartua nauka ere!

Kataluniar antropologo Esteva Fabregat Claudio maisuarengandik nik ikasitako ikasgai nagusienetari-ko bat hauxe izan da: “Actualmente en la antropología vasca, Uds., los jóvenes antropólogos, tienen que trabajar muchísimo para dar con la nueva teoría antropológica de la cultura vasca de hoy y de mañana” (Apalategi Begiristain, Joxemartin, 1982).

Caro Baroja Julio maisuarengandik nik ikasitako ikasgai nagusienetari-ko bat hauxe izan da: “... a pesar de todo hay que continuar, hacer” (Apalategi Begiristain, Joxemartin, 1982).

Ikasgai hauen eta beste batzuen bidez nire metodologia etnologizkoa izatea iritsi da. Hots: berri guztiak bizi dutenengandik jasoak dira; ikerleku aintzindaria Euskal Herri osoa da; garaia 19., 20. eta 21. mendea da; eta, azkenik, edozein kulturak izateko duen eskubidea printzipio haundienetzat ematen da.

Iadanik idazlan mordo bat argitaratua daukat. Datorren urtetan argitaratu-ko ditudanen ondoren ikusiko da zehazki zein idazlan den nire ikerlanaren gailurra.

6.EUSKAL HERRIKO BIHARKO PERTSONA ETA PERTSONARTEA TEORIA

Izenburuak nire datozen urteetan egingo dudan ikerlanen helburua nahi du aidarazi, bereziki. Lan horretan, beste etnologo edo antropologo askorekin

kide izango naiz, eta hein horretan nahiko nuke denok batera teoria hau burutuko bagenu.

Ikusirik, aurreko puntuan azaldu bezala, Barandiaranen eta Caroren teoriak, hirugarrengoa honena nola marrazkitzen dut nik, gaur gaurkoz?

Hona hemen bere ezaugarri zenbait:

1. Kulturaren elementu osatzaileen zerrenda berraztertu eta aberastu behar da.

2. Kultura bakoitzak bizitzeko duen eskubidea eta baliapideak defendatu behar dira antropologikoki eta pertsona zientzi guztietatik.

3. Kultura desberdinen arteko borroka ezin bestekoetan, norberarenean, bizitzako mailan alegia, irabazle izateko jokatu behar da, eta besteekiko axolagabe bilakatu.

4. Antropologian, eta Euskal Herrikoan bereziki guk, etnografia berriak ugaritu behar ditugu gure lurralde osoan, pertsonatalde mota guztien artean, kultura desberdinen artean. Duela bi urtez gero, nire aldetik horixe egiten nator honako izeneko etnografizko eta etnologizko edo antropologizko bilduma honetan: *Euskalerriko Etnografia eta Antropologia Soziokulturala*, iadanik lau idazlan argitartu ditudalarik.

Azkenik, biharko Euskal Herriko pertsona eta pertsonarte ezaugarri hauek betetzen dituen antropologizko teoriaren baitan daudela, hein handi batetan, azpimarkatzen dut, behin eta berrero. Eta teoria honeaz munduko biharko beste herri guztien funtsezko izatea aldi berean agertua eta defendatua geldituko dela esanaz amaitzen dut, oraingoz.

BIBLIOGRAFIA

APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin

1982: *Esteva Fabregat Claudio eta Biok*, elkarrizketa argitaragabeak.

1982: *Caro Baroja Julio eta Biok*, elkarrizketa argitaragabeak.

1985: "Izpirituzko Kulturaren Antropologia", 154-158, in *Euskal Herria, Historia eta Gizartea -Historia y Sociedad*, Arrasate: Lan Kide Aurrezkoa eta Jakin.

ARANZADI, Telesforo

1919: "Etnografia", 364-382, in *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao: Bilbaina de Artes Gráficas.

BARANDIARÁN, José Miguel

1916: Lehen argitalpena: "Ataen en la Edad Media. El antiguo castillo", 486-489, in *Euskalerraren Alde*, Donostia: Gipuzkoako Aldundia.

1974: Facsimila, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

1934a: Lehen argitalpena: *Euskaleri'ko Leen-gizona*, Donostia: Benat Idaztiak.

1976: 213-233, in *Obras Completas*, XI, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.

1934: *El hombre primitivo en el País Vasco*, Zarauz: Itxaropena.

1976: 335-458, in *Obras Completas*, XI, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.

1969-70: "Proemio", 7-11, in *Anuario de Eusko-Folklore*, XXIII, Donostia: S. C. N. Aranzadi y R. S. V. A. P.

CARO BAROJA, Julio

1929: "Algunas notas sobre la casa en la villa de Lesaka", 61-91, in *Anuario de Eusko-Folklore*, IX, Gasteiz: Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos.

1949: Lehen argitalpena: *Los Vascos*, Donostia: Biblioteca de Amigos del País.

1958: in Madrid: Minotauro.

CHANGEUX, Jean-Pierre

1983: Jatorrizko izenburua: *L'homme neuronal*, Paris: Librairie Arthème Fayard.

1985: *El hombre neuronal*, Madrid: Espasa-Calpe.

MINER, Rafael

1985.11.23.6: "Declaraciones de Caro Baroja - Un Premiado poco competitivo y con algunos escrúpulos", 49, in *Deia* egunkaria, Donostia.